


1813^{ko} AGORRILLAREN 31^A

KONDAIRAK bere orri beltzenetakoan guchi agertzen dituen bezelakoa, izan zan Donostia-ko erri zorigaiztokoentzat 1813^{-ko} Agorrrillaren 31^{-ko} gaba.

¡Arratz izugarria! bai, beñere donostiarrai aztuko ez zayoten gaba:



Fuente que en la época del siniestro, se hallaba en la calle del Pozo.


El león corona actualmente la fuente de la Plazuela de Lasala.

Gorriak daude goiak urrutiraño,
ageri dan guzia, gorria dago,
ta lurak baño
izutzen du zeruak askos geiago.
Argitan zabaltzen da zeru goibela
illargi gabe,
¡zer doakabe!
odoiak su garretan baliz bezela,
ta infernuak balira gabaren jabe.

Ala zion Serafin Baroja jaunak, eta egia zion. Egun gorria, arratz izugarria, izan zan atsekabez betetako ura.

Urte batzuben geruago, itz egiteko gaya izan genduan, gau ikaragarri artan arkitutako andre batekin; eta bazirudien orduko zorotasuna, ikara izugarritzkoen erotasuna, etzizayola oraindik igaro. Berritzen zizayon gaba artako izena aitatu utsakin:

—«¡Arratz izugarria! Ingelesak opill prantzezak bezelako gauza batzuek botatzen zituzten echietara, eta bat batetan idaragarrisko suba sortzen zan, kiskaltzen zitubena baztar danak. Garra tartetik itzul egitia, gudarien atzaparretan erortzeko zan. Sua alde batetik, odola beste-



EL DONOSTIA DE LA ÉPOCA DE LAS MURALLAS


tik: orra zer ikusten zan gau doakabeko artan.» Onla mintzatzen zan andre gajo ura.

Gauza bera dio neurtizlariak:

¡Sua ta odol gorria! Naga ta igara
sutunpadak, ansiak, ilkintza nun nai,

chimist dardara,
biziak ta bizitzak garren errakai
ta isil-isil zijoan odol erreka,
karrikan bera
itsas aldera,

iturria geiturik illak taldeka
ez bazetorren sua eragostera



CONSISTORIO DE LA CIUDAD DE SAN SEBASTIAN
*Construido bajo la dirección del Arquitecto Hercules Torrelle en 1719
Destruído en el incendio del 31 de Agosto de 1813.*

Egun guchi barru, Manuel Sagasti zanak jarritako eresi edo doñuan, entzutzen ziran Donostia-ko kalietan beste neurtitz batzuek eus-
kera eta erdera nastuan. Neurtitz ayetan ere, azaltzen da garbiroki, gau
artako antsi ikaragarria.

Ara nola ziran:

Entraban en las casas
 batian zazpi, zortzi,
 la primera maniobra
 bayoneta erakutzi,
 pedían el dinero
 beztela biziya utzi;
 entonces no pensaba
 mundu onetan bizi.

Escena horrorosa
 kalia ikusi nik,
 á una infeliz niña
 bayonetaz josirik;
 no quiero referiros
 zenbat ikusi nik,
 por no dejar al mundo
 eskandalizaturik.

Desgraciados habitantes
 deskonsolatuak,
 clamaremos al Cielo
 zabaldurik besuak,
 sin duda lo merecen
 gure pekatuak,
 dejemos, pues, en olvido
 pena pasatuak.


*
* *

¡Arratz izugarria! Ez dira, ez, astutzekoak gabartako egipen odoltsuak.

Bańan, ¿zer gertatu zan egipen oyen ondorian? Donostiarrak gogoratu ziran donostiarrak zirala, erria-ren ganako zaletasunezko chinpartak, piztu zuben biyotzetan naitasunezko garra pizkor eta sendua; eta naitasun arren bitartez alchatu zuten beren erri maite eta atsegińa, eta mallarik goyenetakoa jaso zuten Donostia-ko erri leńargiaren izen ospatzua.


Ori egin zuten gure asaba doatsuak. ¿Non da orain orduko donostiartasun bero eta kementsua? Alako donostiartasuna ez degu orain ińon ikusten; donostiarrak ikusten ditugu orain otzak, oso otzak.

Subak donostiartasuna pizkortu, sendotu, indartu egin zuben. ¿Subak egin ez zubena egingo ote du jelak? ¿Izotztuak gelditu biar ote degu?



Plano de reedificación de la Ciudad, correspondiente al trozo comprendido entre la calle Mayor y el muelle, y en el que se advierte el trazado anterior al incendio y en líneas negras las reformas introducidas que corresponden á la actual distribución de calles y Plazuela de Lasala.

Ez dezala Jaun aundiak orlako atsekaberik gorde gure errientzako. Asaben antzera, esnatu gaitian gu ere, biyotzetan piztu deyela naitazunesko su garra, eta berriro gure artian agertu deyela portitz eta indartzu astutzen dijoan donostiartasuna.




PASEO DEL HORNABEQUE

Sayatu biar degu indar guriz donostiartasuna piztutzen, donostiartasunen ondotik euskaltasuna sendotutzeko.

Izan gaitian benezko donostiarrak, egiazko euskaldunak izateko.

EUSKAL ERRIA





ASALTO DE LA CIUDAD DE SAN SEBASTIÁN. — ESTAMPA DE LA ÉPOCA, DEDICADA Á GRAHAM POR E. ORME